Noaua!!

H A M A B O S K A R I A

2006ko otsailaren 29a V. urtea

Usurbil, 97. zenbakia



Ikasturte berriaren bidea hartuta

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA
BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8 *ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8*

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA,
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.
KALE NAGUSIAN 4.6.8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2.4.6.8

GARAGE ITXIAK. KOMUNITATEN ADMINISTRATUAK.
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT . ALTURA BEREZIAK,
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT. TAMAÑA ETA LUZERA
DESBERDINAK. EGUNEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU
PROPIOAREKIN. KOTXEAK GARBITZEKO LEKUAREKIN.

SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUAK
SARRERAK: 500.000 pezetarik. HILEKOAK: 15.000 pzt.

MENDIGAIN S.M. ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE

GARAGEN DISTRIBUZIOA



Lehengo solairua Bigarrengo solairua

SETABU TAILERRAK, S.M.
ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA



SOLDADURA

BURDINEZKO ATEAK

BURDIN SAREAK

PLANOTIK EGINDAKO PIEZAK

Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

Ugarte industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

TELF: 943 36 08 48
FAXA: 943 37 24 67

TXIMINIA ALTZARIAK



Polígono Osinalde
USURBIL (Gipuzkoa)
Tfno.: 943 37 09 66 - Fax: 943 37 29 32

ALTZARIAK AUKERAN

1.OOO metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa Tel.: 943 37 09 66

Txerrimunik ordainetan

Berandu bada ere zorionak **Ainhoa, aitona eta Esther** zuen urtebetetze egunagatik. Ondo pasako zenutelakoan urte askotarako denoi. Etxekoen partez.

Etxeko nagusiak 87 urte beteko ditu irailaren 29an, baina urriaren 10ean 9 urte beteko dituenak laster hartuko du bere postua. Zorionak **aitona Joxe eta Mirotz** etxekoen partez.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: urriaren 13an
Ekartzeko azken eguna: urriaren 6an

Hildakoak

2000-09-23
Joxe Kamino Urruzmendi
69 urte
Txokoalde

2000-09-15
Juana Urrestarazu Tejeria
90 urte
Aginaga

Jaiotzak

Nagore Huizi Soto
(2000-09-10)
Kalezar

Manex Altuna Aizpurua
(2000-09-19)
Aginaga

EUSKO TRENBIDEAKEN UDABERRIKO AUTOBUS ORDUTEGIA

ASTEGUNETAN

Donostia	Usurbil	Zarautz
07.40	08.05	08.25
08.00	08.25	08.35**
08.40	09.05	09.25
09.00	09.30	09.40 *
09.40	10.05	10.25
10.40	11.05	11.25
11.40	12.05	12.25
12.00	12.25	12.35**
12.40	13.05	13.25
13.00	13.30	13.40 *
13.40	14.05	14.25
14.00	14.30	14.40**
14.40	15.05	15.25
15.00	15.25	15.40*
15.40	16.05	16.25
16.40	17.05	17.25
17.40	18.05	18.25
18.00	18.30	18.40*
18.40	19.05	19.25
19.00	19.25	19.35**
19.40	20.05	20.25
20.00	20.30	20.40*
21.00	21.25	21.45
22.00	22.30	22.50

*Orioraino **Aiaraino

Zarautz	Usurbil	Donostia
06.45	07.05	07.30
07.15	07.35	08.00
07.45	08.05	08.30
08.15	08.35	09.00
08.45	09.05	09.30
09.20**	09.30	10.00
09.45	10.05	10.30
10.20*	10.30	11.00
10.45	11.05	11.30
11.45	12.05	12.30
12.45	13.05	13.30
13.20**	13.30	13.55
13.45	14.05	14.30
14.20*	14.30	15.00
14.45	15.05	15.30
15.20**	15.30	15.55
15.45	16.05	16.30
16.20**	16.30	17.00
16.45	17.05	17.30
17.45	18.05	18.30
18.45	19.05	19.30
19.20*	19.30	20.00
19.45	20.05	20.30
21.15	21.35	22.00

*Oriotik **Aiatik

ASTEBURUTAN

Donostia	Usurbil	Zarautz
07.30	07.55	08.15
08.30	08.55	09.15
09.30	09.55	10.15
10.30	10.55	11.15
11.30	11.55	12.15
12.30	12.55	13.15
13.30	13.55	14.15
14.30	14.55	15.15
15.30	15.55	16.15
16.30	16.55	17.15
17.30	17.55	18.15
18.30	18.55	18.15
19.30	19.55	19.15
20.30	20.55	20.15
21.30	21.55	21.15
22.30	22.55	23.15

Zarautz	Usurbil	Donostia
06.45	07.05	07.30
07.45	08.05	08.30
08.45	09.05	09.30
09.45	10.05	10.30
10.45	11.05	11.30
11.45	12.05	12.30
12.45	13.05	13.30
13.45	14.05	14.30
14.45	15.05	15.30
15.45	16.05	16.30
16.45	17.05	17.30
17.45	18.05	18.30
18.45	19.05	19.30
19.45	20.05	20.30
20.45	21.05	21.30
21.45	22.05	22.30

AZPIROZ
Harri Lanak
BERTAKO FABRIKAZIOA
(bitartekorik gabeko salmenta)
Bazkardo auzoa. INCARGI habeartea (2 zk). Tfnoa.: 943 59 22 09
USURBILEN AZPIROZEN ZERBITZUA
mur ERROTULAZIOAK - Nagusia, 10 Telf.: 943 36 60 21

HARRI LANAK OROKORREAN
- Hilarriak, panteoiak eta hileta apainketak
- Sukalde eta bainuen gainekoak
- Baserri eta edozein etxeetarako errotuloak
- Oroitzapenezko plakak
- ...

Noaua!! HAMABOSKARIA

Argitaratzailea
Noaua! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail:noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
http://www.topagunea.com/noaua/

Kazetarien koordinatzailea
Josu Aranberri

Kazetariak
Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea
Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea
Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak
Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa
Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Erredakzio Kontseilua:
Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua
Olatz Goenaga, Zaloa Arnaiz eta Ibon Beristain.

Dokumentazioa
Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika
Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa
Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria
Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

***Noaua!* Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan**

Azala:

Udarregi ikastolako ikasleak etxeruntz bidean

"URBIL", EUSKARA ETA IRUZURRA: BESTE DATU BATZUK

Edorta Agirre

Polita da publizitatean jende guztiaren eskubide linguistikoak errespetatzen dituela aldarrikatzea, telebistako saioren bat esponsorizatzea, etab., Grupo Eroskik egiten duen bezala. Mundu honetan, ordea, dena pagotxa ez omen:

Esku-karro urdinetan bi letrero daude, bata espainolez eta bestea euskaraz. Ume-aulkia tolestatuta ondo irakurtzen dena erdarazkoa da; gurea ezkutatu xamar egokitzen da.

"Consumer-NATURA: La marca propia de carne de EROSKI" izeneko triptikoa espainolez idatzita dago, goitik behera. Harategian prospektu horren euskal bertsiorik ba ote zuten galdetuta, ezezkoa jaso genuen.

Ekainaren 7ko ilunabarreko 20:30. Ume txiki bat galdu egin dute gurasoek. Arrunt urduri dago umea, negar-zotinka, Urbil horretako sarreran. Eroskik alkilatu duen polizia pribatuko bi agente, bere esku-burdina, borra, esprai eta guzti, galdezka ari zaizkio umeari, baina... umea arraroa da: ez daki espainolez, ez da ume poliglota, ez du ezagun polizien hizkuntza ederra. (Beste aldetik, megafonia ez omen dabil, bertako langileek diotenez). Emakume bat etorri, umea lasaitu, euskaraz ari zaio eta malko zirenak lasaitasun bihurtzen hasi dira. Hamar bat minutura gurasoak etorri eta umea irribartsu. Polizia pribatuak ez daude bertan, aspaldi. Arrazoi posiblerik? Auskalo, umea euskaldun eta haiek erdaldun izatea. Edo seko alferrak izatea...

Norbaitek pentsatuko du guk isildu behar dugula, iritziz aldatu egin behar dugula. Agian. Baina Usurbilgo Eroski zuzen ari denik nekez pentsa dezake inortxok ere.



Usurbilgo Udala
Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria
Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria
Euskal presoak
Euskal Herrira!

McDonalds: gu guztion jabe

Gure bizimodu ohiturak asko aldatu direla begibistan dago. Eta aldaketa horietako batzuek onerako izan direla ere bai, baina askok zurrunbilo ero batean beraien preso hartu gaituztela ezin ukatu.

Behingoz bederen har dezagun denbora pittin bat, presaka ez bagabiltza, oinarrizko hausnarketa txiki bat egiteko. Gizakiok gure biziraupenetako arnasa hartzea, atsedena eta elikatzea ezinbestekoak ditugu, eta urrezko arau horietakoren batean hutseginez gero, gure bizimoduan eraginik izan dezake.

Azken urteotan, baina bereziki azken egunotan, Europan zehar hainbat naziotan ikusitako hainbat albisteekin zur eta lur nago. Txinatarrek bertako janaria baino nahiago omen dute hamburgesa, McDonalds etxea salmentei dagokionez nagusietako bat izanik. Eskandinabia osoan, Laponian barne, McDonaldseko postuak herririk ezkutuenean ezarrita ikusi ditut.

Munduko biztanleriaren artean joera nabarmena omen dago, herri bakoitzaren betiko gastronomia baino EEBBetatik ekarritako janari lasterreko menuak kontsumitzea. Euskal Herrian beti esan izan dugu zeinen ondo jaten den eta hala izan dela ezin ukatu, baina gure ohiturak ere bortizki aldatzen ari dira. Aipaturiko McDonalds etxeak baditu hainbat saltoki Iparraldean, eta Iruñean duela gutxi zabaldu dute Nafarroako lehen saltokia Leclerc merkatal zentruan. Donostian, Garberan ja bada bat eta Bretxako merkatuan bestea irekitzeko asmoa dute. Bizkaian, berriz, Bilboko zentro komertzial erraldoietan kokatu dira.

McDonaldsen janaria zaborra da eta gure betiko janari-ohiturei gailentzen zaio izugarrizko abiadan. Konturatu orduko, gure gazteria inolako arazorik gabe saltoki hauetan ari da murgiltzen. EEBBetako multinazional honek publizitate kanpainetan milaka milioi gastatzen ditu urtean eta, gainera, prezioei dagokionez, izugarrizko eskaintzak egiten dituela dirudi.

McDonalds inperialismoaren eta janari zaborraren ikur nabarmena da eta ikustea besterik ez dago: baserritar talde bat, protesta sinple bat egin duelako auziperatua izan da duela gutxi Frantzian. McDonaldsen atzean kultura uniforme, nortasun ezabatzaile eta hondameneko kultura sostengatzen da. Honi aurre egin ezean, gure osasunaz gain gure euskal izatea dago arriskuan; munduko edozein biztanleriarekin gero eta ezberdintasun gutxiago izango dugu, McDonaldsek gu guztion jabe izateko bidea hartu du eta guk ezin dugu hori onartu. Horri aurre egin eta gure aberastasun eta aniztasun guztiari eutsi behar diogu. Janari sanoak, garbiak eta gureak direnak kontsumitu behar ditugu, horren atzean dagoen lehen sektorearekin bat egin behar baitugu. Praktika eta ohitura horiek bultzatzeko elkar hartu eta bidea egitea da gu guztion lana.

Marta Agirrezabala.
EHNE

TXOKOALDE

Iñaki Labaka

Zubiaren konponketak ixil-ixilik aurrera

Abuztuko opor aurreko alean, Olatz nere auzokideak kontatzen zigun zubiaren konponketak hasi berriak zirela. Auzoan, nahiz eta honela ez zela gertatuko esan, beldur ginen Santuenean bertako zubia konpontzerakoan ibili ziren bezala ibili beharko ote genuen, alegia, zubia itxiko ote ziguten langileek lana hobeto egiteko eta guk bitartean San Estebandik bueltan ibili beharko ote genuen, honek dakarren eragozpenekin.

Zorionez, bi hilabete daramate lanean eta iragarri bezala ez dute zubirik itxi, ezta oztopo haundirik sortu ere. Aldamioa altxatu eta hor ari dira zubiaren estrukturak konpontzen.

Kotxean pasatzerakoan, konpresorea ikustean edo zubi alboan harrotzen duten hautsa zenbait momentutan ikusten duzulako konturatzen zara norbait lanean ari dela. Ni behintzat, maiz pasa naiz zubitik



zehar kotxez eta gutxitan ikusi ditut langileak. Hor ariko ote ziren lanean! Ezjakitun, enteratu ere ez zubian konponketak egiten ari direnik.

Bestalde, udazkenean sartzera goazenean piper biltzeak bukatzear daudenean, orain babarrunak biltzeko garaia heldu da. Iraileko bigarren astean izan genituen eguraldi eguzkitsuak majo aprobetxatu zituzten, helduta aurkitu zituenak, babarrunak etxeratzeko. Hurrengo egunetan euria egin zuenez geldirik egon behar. Azken egun hauetan eguzkia azaldu da berriro eta ea denak helduta aurkitu eta biltzen dituzten gero neguan odolki eder batekin jateko.

KALEBERRI

Jokin Zubiaur

Eragin eta eragin!!

Halatsu amaitu zuen aurrekoak, bere kontzientzi-terapia. Orain nire txanda denez berak agindu bezala kontzientzi saioa egin behar dut, neure ahalmenaren (gogoaren) arabera sakonduz.

Dagoeneko "Urbil efektua" finkatua dagoela, beren ondorioez mintzatu (trufatu) nahi nuke. Hau ikusi baitut kontzientzia kontzientziatzeko gai egokitzat, politikaz hitz egiteak bat alaitzen ez duen honetan.

Estatuek globalizazioa aipatzen dute ekonomiaren bilakaera azaltzerakoan; nik ere hitz

hori ikusten dut egokia saltokien bilakaera azaltzerakoan; beraz, nahiz eta hitz hori (globalizazioa) handiegia izan herri-girorako, efektu horren eragina betebetean jasotzen du herri-giroak.

Ezin ukatu, zentru dotore eta erakargarri horrek, kaleak duen xalotasun hori galtzen duenik.

Estatu Batuetan jendea biltzeko balio duen horrek ez du gure artean efektu bera. Esate baterako, goiza etxekolanean igaro behar duenak, nahiago du okindegian harekin topo egin eta besteari gertatu zaionaz jabetu; gero mezulari lana beteaz etxean parte emateko.

Dena dela, niri ere utzi dit sintomaren bat efektuak: supermerkatu handietan aurretik erosketa nork egin duen axola ez zaigun moduan, aurreko kronikalariaren kronika aipatu baitut, egileari garrantzirik eman gabe; ni bai kontsumista!!

KALEZAR

Joseba Pellejero

Arene, arene, ai ene

Opor aroa bukatu da eta hementxe gatoz berriz ere betiko martxan.

Oraingo honetan, berri triste batekin nator zuenganaino.

Urte batzuk dira Harane (Saizar) futbol zelaia egin zutela. Nahiko lan emango zuen non eta nola egin asmatzen, baina, beharra zegoenez azkenean Kalezarren egin zuten. Geroztik hamaika neska-mutil ibili dira maionako aldapan gora eta behera, oinez, motoz eta kotxez, maleta haundia lepotik zintzilik dutela, eguraldi ona zein txarra egin (hau meritua). Gauez aritzen zirenean, berriz, ederki asko ohartzen ginen, foku haundi horiek auzo erdia argitzen baitzuten. Baina garai sasoidun horiek bukatu dira aurtengo denboraldian.

Aurreko urtean lau talde zeuden jokatzen, mutiletan hiru eta nesken talde bat. Aurten, berriz, erantzun garbirik ez duen gauza gertatu da: neskek bakarrik atera dute futbol taldea aurrera, mutilen hiru taldeak desagertu egin dira, alegia. Batzuk Kirol Patronatuari botatzen diote errua, ez duela inongo laguntzarik eman eta beste batzuk zelaiaren urruntasuna, belar artifizialaren falta...aipatu dute.

Lotsagarria eta penagarria, behintzat, gertatu dena. Jokatu nahi duenak, Oriora edo Lasartera mugitu behar, ze erremedio.

Orain neskak bakarrik ditugu, bejondeiela! Nork esango luke futbolean neskak nagusituko zitzaizkigula? Mutilek baino "potro" gehiago dituztela erakutsi digute orain ere.

ATXEGALDE

Zaloa Arnaiz

Basa-lorategiak ugaritzen

Dagoeneko urrian gaude eta udazkenaren usaina nagusi da inguru guztietan. Zuhaitzen hostoak erortzen hasi dira eta hauek alaitzen dituzten txoritxoak leku goxogoetarago joko dute hotzari aurre egiteko. Baina urtaroz aldatu eta zuhaitzetako hostoak lurrera erori arren, gure ingurunea berdin zaintzen jarraitu behar dugu. Eta zergatik diot hau?

Gure auzoko lorategiek belarra izateaz gain **zuhaitzak, loreak eta landareak** dituztela azpimarratu nahi dut, eta hori oraindik ez dakien inor badago, auzoko kaleetatik bueltaxka bat ematea besterik ez du, ziur egon paisaiaz gozatuko duela eta (auzoaren behekaldeko ingurunea kenduta, noski). Lorategi hauen ardura Udalaren esku dago eta egia esan ez da lan makala Atxegalde herriko auzo bakarra ez dela kontuan hartzen badugu. Baina lorategiak ez dira belarrez bakarrik osatzen.

Momentuz paraje honetan lorategiak basa-lorategietan bihurtzen ari dira eta naturaren legez, poliki-poliki inguruan topatzen duten guztia irentsiko dute, bankua kasu. Norbait ausartuko ote da bertan esertzen?



SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta

Santuenean eskubaloia nahiz eskuan bastoia

Halaxe diote kamixeta berriek eta arrazoirik ere ez zaie falta. Igandean eskubaloizaleok aukera paregabea izan genuen garai bateko igande eguerdiko eskubaloi partidak gure auzoan ikusteko.

A ze oroitzapenak! Plazako eskailerak jendez gainezka, gurasoak beren semeak animatzen, porteriak, jokalarientzako betiko aulki berde itxusi haiek, eta nola ez, "local-visitantes" dioen markadore zaharra . Hala ere, azkena jokatu zutenek ez zituzten porteriak jaso. Bagenuen gogoa auzokoek une haietaz berriz ere gozatzeko aukera izateko, baita jokalari ohiek ere.

Azken partida jokatu zutenetik batzuentzat urte askotxo pasa diren arren, oraindik ez zaie ahaztu eskubaloian jokatzen. Atezainak ere bikain aritu ziren, atezain baten lanak eta mugimenduak egoki landuz oraindik ere. Denak saiatu baziren ere, urteen zama bizkar gainean eraman behar, a ze erremerio!

Bestalde, Tirri-Tarra fanfarrearen ikuskizunak arrakasta izan zuela aipatu behar da. Plaza jendez gainezka egon zen eta gurasoek ondo pasa zuten haien xelebrekeriak eta jantzi dotoreak ikusiz.

Hurrengo urterarte, beraz, agur esatea besterik ez zait falta. Eta bide batez Ibai-Ondo Elkarteko kideen lanari bikain bat jartzea.

URDAIAGA

Joseba Zubeldia

Udazkeneko bisitariak

Urdaiagako auzoak bisitari dezente izan ohi ditu urtean zehar. Baina badira bisitari horien artean berezi samarrak ere, udazkena heltzearekin batera agertzen direnak.

Udazkena, zuhaitz askok fruitua ematen duten urtaroa da, haien artean: sagarrondoa, intxaurrondoak, urritzak,...Auzo honetan mota hauetako zuhaitz asko aurki daitezke eta ez da harritzekoa izaten zuhaitz gainean "hegazti" haundi samarrak ere ikustea. Poltsatsoa poltsikoan hartu eta mendira joateko aitzakiarekin, etxetik hutsik ateratako poltsa hori bete samarra itzuli ohi da etxera.

Baina gure auzora gerturatzen diren bisitari guztiak ez dira berdinak, badira izerdi pixka bat atera asmoz auzo honetara igo ohi direnak ere. Batzuk, gainera, Andatzaraino igotzen ausartzen dira, bai oinez eta bai bizikletaz. Ez da ez, izerdia ateratzeko modu txarra.

Zuhaitzen inguruko kontuekin jarraituz, hostoak zimeltzen hasi zaizkie urtaro honetan ohikoa den lez, bide bazterrak eta kaxkotik Santuenera doan bidezidorra hostoz josirik daude, irrist egiteko arriskua areagotuz, batez ere euri pixka bat egitean. Beraz, oinezkoei arreta pixka bat jartzea eskatu behar ipurdikoren batekin etxera itzultzerik nahi ez badute.

iran

AGINAGA

Oxkar Santamaria

Ondo Pasa! Praixku

Aurtengo lehenengo hego haizearekin batera iritsi dira San Praixkuak Aginaga aldera, baserritarrak babarruna biltzen hasi diren bitartean, gazteak, festen zain, suziriak noiz botatzen hasiko zain gaude.

Esan behar, festetako egitarauan agertzen ez bada ere, denbora librean eskulanak egiten aritzen diren herritarren lanen erakusketa ere izango dugula (pintura, gantxiloa, makramea...). Erakusketa hau apaiz etxean izango da ikusgai urriaren 4, 6 eta 8an.

Bestalde eta festekin jarraituz, pilota txapelketa irailaren hasieratik martxan da eta datorren igande eguerdian jokatuko den finalean zeintzuk izango diren badakigu dagoeneko: eskuz, **Imanol Esnaola Joantxo Esnalen** aurka eta palaz, **Jokin Atxega Jimy**ren aurka.

Aurtengo jaietan, ekitaldi berrien artean ezin aipatu gabe utzi umeentzako, beraien egunean, plaza zirko bihurtuko dela. Kontzertu txiki bat ere izango dugu. Bertan, Usurbilgo eta Orioko taldeak izango ditugu eta azkenengo egunean xexenak ez dira faltako, ausartenen atzetik korrika.

Hala ere, herriko gazte eta ez hain gazteak igandea noiz etorriko zain izango dira, sokatira lehia ikusteko gogoz. Nork irabaziko ote du? erantzuna igandean arratseko 5etan plazan. Ondo pasa!

ZUBIETA

Xabier Arregi

Plaza inguruko plangintza aurrera

Aspaldiko kontua da plaza inguruko plangintza urbanistikoarena. Hainbeste aldiz aipatu dugu! Hain luze doa! Zerbait egingo denik sinisteak ere lanak ematen ditu.

Hala ere, azken asteotan bada nobedaderik. Jakina denez, plangintza horretan 96 etxebizitza eta beste zenbait

ekipamendu eraikitzea aurreikusten da.Joan den astean eman zitzaion behin-betiko onespena birpartzelatze proiektuari Donostiako Udalean, eta aste honetan emango zaio onarpena Usurbilgo Udalean.

Aurrerapauso handia da behin-betiko onarpen hori, izan ere, horrela finkatuta geratu baita zein lurjaberi zer egokitzen zaion. Partiketa egina dago, beraz.

Hemendik aurrera uste izatekoa da prozesua azkarrago joango dela. Besteak beste, urbanizazio proiektua dago orain mahai-gainean. Proiektu horretan frontoi estaliaren eraikuntza jasotzen da. Frontoi hori eraikitzea Zubietako Herri-Batzarraren lehentasun handiko helburua da, uste baitugu Zubietak ekipamendu horren premia duela.

Dagoeneko bi udalek hartu dute frontoia eraikitzeko konpromisoa eta urbanizazio-proiektuan xehetasun handiz jasotzen da non eta nola eraiki beharko den.

Hemendik aurrera emango du zer esana proiektu urbanistiko handi honek. Kontua da, halakoetan, informazioa zabaltzea eta herritarrak jakinaren gainean egotea. Horretan saiatuko gara.

Elkarrizketa

Saioa Fernandez: "Hondartza eta bertako arauak errespetatu behar dira"

Uda honetan hondartza "beste aldetik" ezagutu du Saioa Fernandezek, izan ere, DYAko postuan erizain modura aritu da hilabete eta erdiz Getarian. Bestelako kontua da toaila hartu eta lasai-lasai hondarretan lo kuluxka egitera joatea, ala?

Nola bereiz ditzakegu hondartzazale porrokatua eta noizbehinkako "domingeroa"?

Hondartzazale porrokatua txikikeria batekin ez da guregana etortzen, benetan zauri larria edo duenean etortzen da guregana. Noizbehinkako hori, berriz, errazago etortzen zaigu laguntza eske, edozer duela ere.

Hori DYAko zerbitzuei dagokienean, baina nola atzeman zein motakoa den hondartzara iritsi bezain pronto?

Domingeroak gauza pila bat ekartzen ditu, aulkiak, eguzkitakoa, amona...eta iskanbila asko sortzen du. Eguneroko horiek, berriz, lasaiagoak dira.

Lan asko izan duzu uda honetan?

Abuztuaren erdialdetik aurrera, ura beroa zegoenez, marmoka asko izan da eta hauek askatzen duten pozoina dela eta, azaleko zauri asko egon dira, batez ere ur izkinean ibiltzen diren haurrei. Bestelako zauriak ere izan ditugu, arroketan egindakoak...

Zein izan da kasurik larriena?

Uretan zebilen gizon bat zorabiatu egin zen eta ospitalera eraman behar izan genuen. Beste behin, gazte batek zauri larri samarra egin zuen arroketan eta ospitalera eraman genuen puntuak ematera.

Gauza barregarririk ere gertatuko zitzaizun...

Marmokak zebiltzan egun batean, italiar bat gerturatu zitzaigun arazotxo bat zuela esanez. Marmokak toki izkutu batean egin zion zizta nonbait eta larrituta zegoen. Nik, barreari ezin eutsi, ukendua nola eman azaldu eta berak eman zuen.

Hainbeste ordu hondartzan eman ondoren, jendearen portaera guztiak aztertuko zenituen, ezta?

Ordu asko eman ditut begira eta azkenean badakizu nor zertara datorren. Haurrak jolastera etorri ohi dira hondartzara, emakumeak eguzkia hartzera eta gizonezkoak eguzkia hartu eta aspertzean paseatzera edo zerbait hartzera. Amona etortzen denean ur izkinean haurrei begira egotea egokitzen zaio. Gazteak siesta egin eta jolastera etorri ohi dira; futbola, boley-ball, pala...hala ere, bestelako "jolasak" ere praktikatzen dituzte.

"Gaupaseroak" ere topatuko zenituzten...

Bakar batzuk bai. Gainera, Getariko hondartzako arkupeak oso egokiak dira lotarako eta jende asko topatu dugu.

Jendeak hondartzan izan ohi duen ohitura txar bat.

Guk esandakoa ez betetzea. Adibidez, marmoken kasuan jende asko etorri izan zigu marmokak zeudela eta kentzeko esanaz. Guk hori ez egiteko eskatzen bagenien ere, marmoka harrapatzean honek pozoina askatzen baitu, alferalferrik zen. Gainera, gure lana ez betetzea ere leporatu izan digute.

Famaturik gerturatu al da Getariako hondartzara?

Bai, Javier Bardem aktorea izan zen, baina ez zuen zauririk edo izan, ikusi baino ez genuen egin.

Zein aholku emango zenieke hondartzara gerturatzen direnei?

Batez ere hondartza errespetatzea eta bertako arauak betetzea. Normalean jendeak ez ditu zakarrak eta botatzen, horretan nahiko kontzientziatuta dago, baina beste gauza asko ikasi behar dituzte oraindik; adibidez txakurrak ezin badira sartu hondartzara, ez sartu.

Amagoia Mujika

Tripako min ugari ikasturte hasierarekin batera

Batzuk hiru hilabeteko oporren ondoren berriz ere ikasten hasi behar dutelako, besteek irakasleak gogoko ez dituztelako, bi urteko umeek amaren gonapetik atera nahi ez dutelako eta gurasoek, berriz, seme-alabek sortzen dituzten gastuei aurre egin behar dielako. Tripakomina nagusi, bai, iraileko aldapa neketsu honetan. Aurten, gainera, testuliburuen inguruan ez da hikamikarik falta izan. Testuliburuen prezioen askatasunak tripakominak ezezik burukominak ere sortu ditu guraso, saltzaile txiki eta hipermerkatu haundien artean. Eta ez garestiagoak direlako gainera.

Hau da komeria hau, hiru hilabete oporretan egon eta berriz ere ikasten hasi beharra. Ikasle guztien patua, bai horixe, eta herriko ikasleek ere ezin horri ihes egin. Pasa den irailaren 11n ekin zioten 2000-2001 ikasturteari, eta bat baino gehiago hurrengo urteko oporren zain jarria izango da dagoeneko.

Udarregi ikastolako hormek ere nabaritu dute irailaren etorrera. Hiru hilabeteko isiltasuna hautsiko zuten dagoeneko, eta horrenbeste urtetan entzundako ikasgaiak ikasita izango badituzte ere, berriz ere eragiketak nola egiten diren, euskarazko aditzak zein diren eta horrelakoak entzun beharko dituzte.

471 ikasle daude aurten Udarregin. Hauetatik 52 berriak dira, bi urteko 37 ikasle berri baitaude, 10 hiru urtekoak, 4 urteko bat eta D.B.Hn, berriz, 3. Agerialdeko eraikuntzan haur hezkuntza osoa eta lehen hezkuntzako lehenengo lau mailak daude, hau da, laugarren maila arte. Izan ere, banaketa horretan aurten aldaketa txiki bat izan da, Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailak Agerialdera pasa baitituzte. **Begoña Izagirre** Udarregi ikastolako zuzendariaren arabera Agerialdeko eraikina Udarregiren esku gelditu zenean zalantza ugari egon ziren ikasleen banaketa nola egin erabakitzerakoan. *"Hasiera batean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) Agerialdera eramatea pentsatu zen, baina bi eraikuntzen prestakuntzak aztertu ondoren Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat prestakuntza hobeak zituela ikusi genuen"*.

471 ikasle daude Udarregin, 8 Aginaga eta Santueneako eskoletan eta 12 Zubietakoan

Pixkanaka-pixkanaka bada ere, bi eraikuntzak hezkuntza maila bakoitzari egokitzen ari dira orain. *"Udalaren laguntzaz Agerialden obrak egin dira eta bi urtekoentzat bi gela jarri dira. Horrez gain, beheko frontoietako batean, haur hezkuntzari beste gune bat eskaintzeko haurrentzako*

jolastokia egokitu da". Agerialden ezezik, beheko eraikuntzan ere berrikuntzak izan dira, DBHko beharrei aurre egin asmoz gelak ondo egokitzeko lanak egin baitira.

Eskola txikietako ikasleak ere ikasturte hasieran

Ez da Udarregi ikastola, ordea, ikasturtea hasi duen bakarra. Santuenea, Aginaga eta Zubietako eskola txikietan ere lehen eskola egunak pasa dira. Eskola hauetan aurre hezkuntza etapa osoa ematen da, haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako hasera zikloa. Eskola hauen etorkizuna behin baino gehiagotan kolokan egon bada ere, 2-8 urte bitarteko haurrek eskola hauetan jarraitzen dute. Aurten 8 ikasle daude Aginagan, 8 Santuenean eta 12 Zubietan. Urteetan zehar eskola hauetan ibili diren ikasleak asko izan dira. Aginaga, Santuenea edta Zubietan bizita gertu izaten dute eskola, eta aurre hezkuntza behintzat auzoko eskoletan egin dituzte haur asko.

Liburuen prezioekin ikamika ugari

Plangintza zaharrak, plangintza berriak... Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etorrera izan da azken urteotako aldaketa nagusia. Aurte, ordea, liburuen prezioek eman dute

zeresan haundiena. Aurreko urteetan kexa gehienak liburuen prezioak eragindakoak baziren, aurten salmenta-toki eta deskontu bereziek guraso eta liburu saltzaileen artean arazo ugari sortu dituzte.

Aurten testu liburuak saltzeko Espainiako Gobernuak onarturiko errege dekretua dago indarrean. Horrek eskola liburuen salneurrietan beherapena kegiteko aukera nabarmen zabaldu du. Izan ere, iaz arte beherapen hori ezin zitekeen %12koa baino haundiagoa izan, baina orain %25 artekoa izan daiteke, eta posible da liburuak kosta prezioan saltzea ere.

Testu liburuen prezioaren askatasunak liburudenda txiki eta hipermerkatu haundien arteko aldea haunditu du, liburudenda txikietan egin dezaketen deskontua %12koa besterik ez baita. Horrez gain, %25eko beherapena egitean, saltzaileak ez du komisiorik irabazten askotan, liburuak erositako prezio berean saltzen dituelako. Dendari txikien ustez, hipermerkatuena salmenta-estrategia bat baino ez da: liburuekin etekinik ateratzen ez badute ere, jendea behin eurengana joanez gero, beste produktu batzuk erosteko aprobetxatzen duelako.

Hainbat saltoki haundik erosleei merketzeari buruzko informazio zuzenik ez diela ematen salatu du Kontsumo Zuzendaritzak. Esate baterako liburuak kosta-prezioan saltzen dituztela diotenean ez dute abiapuntuzko salneurria zenbatekoa den azaltzen, eta horien berri ematen duten katalogoak ere ez dituzte eskura jartzen. Horrez gain, merkatzeak egiten direnean ez dute zehazten zein zen aurreko salneurria.

Ikasliburuen beherapena azaltzen ez

Kontsumo Zuzendaritzak azaldu digunaren arabera, zenbait saltoki haundik testu liburutan merketze haundia egiten dute, baina horren

atzean iruzurra besterik ez dago. *"Askotan merketzea ez dute testu liburuaren kosta preziotik abiatuz egiten, beraiek jarritako prezio altuago batetik baizik. Eta, noski, hori ez dute behar bezala azaltzen"*.

Salmenta hau arautzeko indarrean dauden legeek, gainera, ikasliburuaren salneurria zenbatekoa den argi eta garbi azaldu behar dela diote, bai eta merketzea zein preziotatik abiatuz egin den ere. Legearen arabera liburuaren egile edo eta banatzailearen ardura da ikasliburuan bertan ekoizpenaren salneurria zenbatekoa den ondo azaltzea, erosleek horren berri izatea ezinbestekoa baita.

Liburuen erosketa ikasleen esku Udarregin

Testuliburuen merketze honek aldaketak ekarri ditu Udarregi ikastolan. Azken urteetan ikastolak lortzen zizkien ikasleei liburuak. Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen bitartez beherapen batzuekin ekartzen zituzten liburuak. Aurten, ordea, gobernuak hartu duen erabakiaren ondorioz, ikasliburuen erosketa ikasleen esku uztea erabaki du ikastolak. Begoña Izagirre zuzendariaren esanetan erabaki hau hartzeko arrazoiak bi izan dira: ikastolak eskainitako prezioetan baino merkeago ikasliburuak erosteko aukera alde batetik, eta ikastolari lan bat kentzea beste aldetik.

Izan ere, orain arte ikastolak eskaintzen zuen zerbitzu hau. Ikasleek liburuen bila ibili beharrik ez zuten, Udarregi ikastolak ekartzen baitzituen testuliburuak. *"Honek, ordea, lan bat suposatzen du, eta aurten testuliburuen prezioetan egin daitezkeen beherapenak haundiagoak direnez, erosketa ikasleen esku uztea erabaki dugu. Erabaki honen berri irailean eman genien gurasoei, berandu xamar agian, baina ondo pentsatu ondoren hartutako erabakia da- dio Begoñak - Norbaitek azkar hartutako erabakia izan dela pentsa dezake, hala ere ez da arinkerian hartutako erabakia izan"*. Ahalik eta jende gehienari atsegin ematea izan da ikastolaren helburua, eta sistema hau egokia ez bada bitarteko bat bilatu beharko dela uste du ikastolako zuzendariak.

Orain arte ikastolak ekartzen zituen testuliburuak. Aurten erosketa ikasleen esku utzi dute

Beherapenak beherapen, zenbait ikaslek arazoak izan dituzte liburuak eskuratzerako orduan. Liburudendak, eta batez ere Urbilen moduko merkatal zentru haundiak eskaerei aurre egin ezinik ibili dira. Hau ikusita, zenbait gurasok horrela ibiltzea baino testuliburuak erosterakoan gehiago ordaintzea nahiago dute .

Josu Aranberri

Ikasle bakoitzak 18.895 pezeta gastatzen ditu liburuetan

Ikasturte hasieran zama fisikoa ikasleen bizkar gainean joaten bada ere, motxiletan alegia, gurasoek bizkar gainean daramaten pisu ekonomikoa ere ez da nolanahikoa. Aurten zenbait lekutan testuliburuak argitaletxeei erositako prezioan saltzen badituzte ere, ikasturte bateko liburuak erosterakoan kontu korronteak nabarmen egingo zuen behera. Gipuzkoako Kontsumitzaileen Elkarteak egindako ikerketaren arabera, ikasle bakoitzak bataz beste 24.517 pezeta gastatzen ditu urtean liburu eta kuadernotan; horietatik zatirik haundiena, 18.895 pezeta, liburuetan gastatzen da. Udarregi ikastolak maila bakoitzean behar diren testuliburuen zerrenda eman digu, guk, berriz, liburu bakoitzaren prezioak jakinez maila bakoitzean liburuetan zenbat gastatu behar den atera dugu.

Haur hezkuntza	→	Ez da libururik behar
LH 1. maila	→	7.410 pezeta
LH 2. maila	→	8.440 pezeta
LH 3. maila	→	14.425 pezeta
LH 4. maila	→	14.425 pezeta
LH 5. maila	→	15.625 pezeta
LH 6. maila	→	17.130 pezeta
DBH 1. maila	→	20.000 pezeta
DBH 2. maila	→	19.420 pezeta
DBH 3. maila	→	18.730 pezeta
DBH 4. maila	→	21.525 pezeta

Prezio hauek Zabaltzenen lortutakoak dira. Hala ere, goiko prezio horien zenbatekoa ez da %100ean fidagarria

2001. urterako zerga, tasa eta prezio berriak onartu ditu udalak

Ur hornidura zerbitzuak hiruhilabeteko

Etxeko kontsumoengatik
- 30 m³ arte (gutxienekoa)..... 54 pzt/m³
- 30-50 m³ bitartekoa..... 68 pzt/m³
- 50-100 m³ bitartekoa..... 91 pzt/m³
- 100 m³ baino gehiago.....103 pzt/m³

Nekazal kontsumoengatik
- 30 m³ arte (gutxienekoa)..... 54 pzt/m³
- 30 m³tik gora..... 56 pzt/m³

Merkatal establezimenduetan
- 30 m³ arte (gutxienekoa)..... 63 pzt/m³
- 30 m³tik gora.....102 pzt/m³

Industri kontsumoengatik
- 30 m³ arte (gutxienekoa).....103 pzt/m³
- 30-50 m³ bitartekoa..... 130 pzt/m³
- 50 m³tik gora..... 168 pzt/m³

Udal saretik ura hartzeko eskubideak
- Etxebizitzak..... 6.284 pzt.
- Tailerrak..... 10.747 pzt.
- Industriak..... 63.010 pzt.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen zergak

A) Turismoak
- 9 zaldi baino gutxiagokoak..... 3.600
- 8-12 zaldi bitartekoak..... 8.280
- 12-14 zaldi bitartekoak..... 15.000
- 16-20 zaldi bitartekoak..... 30.240
- 20 zaldi baino gehiagokoak..... 39.600

B) Autobusak
- 21 plaza baino gutxiagokoak..... 19.958
- 21-50 plaza bitartekoak..... 28.426
- 50 baino gehiagokoak..... 35.532

D) Kamioiak
- 1.000 Kg. baino gutxiagoko karga....10.130
- 1000-2.999 Kg. bitarteko karga..... 19.958
- 2999-9.999 Kg. bitarteko karga..... 28.426
- 9.999 Kg. baino gehiago..... 35.532

E) Traktoreak
- 16 zaldi baino gutxiagokoak..... 4.234
- 16-25 zaldi bitartekoak..... 6.653
- 25 zaldi baino gehiagokoak..... 19.958

F) Ziklomotoreak
- 125 zk.rainokoak..... 1.058
- 125-250 zk. bitartekoak..... 1.814
- 250-500 zk. bitartekoak..... 3.526
- 500-1.000 zk. bitartekoak..... 7.862

Datorren urterako zerga, tasa eta prezioak zehaztu ditu dagoeneko udalak. Irailaren 5ean EH taldeak aurkeztu zuen proposamenaren inguruan beste taldeen iritziak jaso eta zenbait aldaketa egin ondoren, talde guztiek onartu zuten 2001 urterako zerga, tasa eta prezio proposamena.

Hiri Hondasun Higiezinen gaineko zergaren kuota %3an igoko da aurten. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagokionez, berriz, kuotetan igoera dagoela ikus daiteke. 9 zaldi baino gutxiagokoetan 660 pezeta gehiago ordaindu beharko da, 8-12 zaldu bitartekoetan, aldiz, 340 pezeta gehiago. Ur horniduretan ere aldaketak daude. Prezioek zertxobait gora egin baitute.

Zabor bilketa zerbitzuagatik etxebizitza bakoitzagatik hiruhilabetero 1.241 pezeta ordaindu beharko dute usurbildarrek datorren urtetik aurrera, aurten baino 36 pezeta gehiago. Jatetxeek, sagardotegiek, oro har, bertan otorduak zerbitzatzen diren establezimenduek nahiz supermerkatuek hiruhilabetero 7.221 pezeta ordaindu beharko dute zerbitzu honengatik eta otorduak zerbitzaten ez dituzten tabernek 3.600 pezeta. Zerbitzua egunero ematen ez den auzuneetan, berriz, dagokien tarifaren gaineko %30eko murrizketa izango dute hiruhilabete bakoitzean.

Zubietako plan partzialaren onespena

Zubietako plan partziala behin betirako onartu du Donostiako udalak. Plan partzial hau onartu aurretik alegazio ugari jaso dira; batzuekin akordio batetara iritsi da, beste batzuekin, berriz, ez. Hala ere, Donostiako udalak plan partzialaren kontu honi amaiera ematea erabaki eta behin betirako onartuta geldidu da. Hemendik aurrera, ordea, izango da zereginik. Urbanizazio proiektua egin lehendabizi, etxebizitzen proiektua gauzatu, lanak nork egin behar dituen jakiteko lehiaketa egin, eta noski, eraikuntza lan guztiak gauzatu.

SAN PRAIXKUAK 2000

Noaua!!

2000ko irailaren 29a

97.alea

San Praixkuak

Hasierakoa

Ez al du hegohaizeak gehiegi joko!

Hegohaize puntak gogoz eta lotsagabeki jotzeko eskatzen du Xabier Aranburu "Xomorro" aginagar presoak Herrera de la Manchatik bidali duen idatzian. Gehiegi ez jotzea espero dugu, bai baitakigu San Praixkuak zer izaten diren. Udan hara eta hona jaiez jai ibili ondoren urrian festa goserik ez dela izaten pentsatuko du bat baino gehiagok, baina bai zera, Aginagan beti izaten da festa giroa.

Ikasleek ikasturtea hasi dutelako, langileei opor egunak amaitu zaizkielako eta aginagarrek, noski, euren auzoko festak direlako... guztiek izaten dute tarte bat San Praixkuentzako. Batzuk besteek baino gehiago, aginagarrek inor baino gehiago, jai hauetan izango da zer eta nola gozatua.

Irailaren 30ean hasiko dira San Praixkuak. Ohitura zaharrari jarraituz oilasko biltzaileak baserriz baserri ibiliko dira goizean goizetik. Zenbat oilasko bilduko ote dituzte? Eguerdi partean plazara itzultzen direnean zenbatu beharko dira.

Aste tartean izango da aurten San Praixku eguna, asteazkenean hain zuzen ere. Egun haundi horretan zihur ez dela bazkari goxorik faltako Aginagako mahaietan. Hori bai, Aginagatik kanpo bizi diren familiartekoekin bazkaria egiteko igande arte itxaron beharko dute, "repetiziorik" ez baita aurten ere faltako. "San Praixkuak", bi asteburutako jaiak.

Hala ere bada galdera bat dugu buruan bueltaka. Azalduko ote dira usurbildarrak sokatira txapelketara?

MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen modazko arropa guztia hemen aurkituko duzu!

Ondo igaro festak!

Etxebeste, 3 Telf: 943 36 11 06

ARRATE

ZAHAR EGOITZA

TABERNA

Jai zoriontsuak aginagatar guztioi!

Aginaga Telf: 943 36 63 40

Angulas Mayoz, s.l.

AGINAGAKO ANGULAK

BEREZKO BIBEROAK

TOKI-BERRI , z/g

Telf: 943 36 15 94

Faxa: 943 36 25 73

AGINAGA

Ondo pasa San Praixkuak!

Ondo pasa

San Praixkuak!

ATXEGA Pescados y Mariscos, s. a.

Mutiozabal etxea, 17

Telf: 943 36 10 81 Faxa: 943 36 57 04

Aginaga

Egitaraua

San Praixkuak

Irailak 30, larunbata
Oilasko biltzaileen eguna

Goizeko 6,30etan: gosaria, kroasan eta txokolatearekin
7.00etan: oilasko biltzaileen irteera
14.00-15.00etan: oilasko biltzaileen itzulera herriko plazara, azken dantza saioa eta siestara
20.00etan: buruhaundiak eta hainbat munstro
23:30etan: Izotz taldearekin dantzaldia
Gaueko onenean: rock kontzertu punkiya eliza zaharrean

Urriak 1, igandea

12.00ak aldera: Aizperro eta Larretxea haizkolarien saioa Egi eta Telleria harrijasotzaileekin batera
Ondoren: XVIII. Toka txapelketa
Aldi berean: pelota finalak frontoi txikian
17:00etan: sokatira saioa. Taldeen pisaketa 16.30etan izango da

Urriak 3, asteartea

19.30etan: poteo herrikoia
23.00etan: **Trakets taldea eliza zaharrean**

Urriak 4, asteazkena
San Praixku eguna

11.00etan: meza nagusia
Ondoren: zaharren hamaiketakoa Aginaga Sagardotegian bi bertsolariz alaituta
17.00etan: herri kirolak, herriko gazteak sasoi betean
Ondoren: sardin eta sagardo dastaketa

Urriak 6, ostirala

9.00etan: umeen jolasei hasiera emango zaie
14.00etan: umeentzat bazkaria
17.00etan: Sebastopoleko titiriteroak
Ondoren: txokolate banaketa
24.00etan: Akelarre taldearekin dantzaldia

Urriak 7, larunbata

16.00etan: XX. mus txapelketa
20.30etan: bertso afari herrikoia Mañukorta, Jon Maia eta Sebastian Lizaso bertsolariekin
24.00etan: Morau bakarlaria
1.00etan: herriko presoei omenaldia
Ondoren: Izotz taldearekin dantzaldia goiz alderarte. Gaupasa egin ondoren xexenak

Urriak 8, igandea

7.00etan: gosaria txokolate beroaz
Ondoren: xexenak, herriko balienteak ezagutzeko aukera
9.00etan: probintzia mailako plater tiraketa
17.00etan: sagardo dastaketa

ETXEBESTE JATETXEA
Eguneko bazkariak
Ondo ibili San Praixkutan!
Telf: 943 36 27 40

Zure auzoko edo herriko festetan Noaua!n publizitatea jarri nahi baduzu, deitu 943 36 03 21 telefonora!

Ondo pasa San Praixkuak!

EIZA DENDA
FESTAK ONDO IGARO!
Aginaga Telf: 943 36 12 06

Frontoi berria egiteko proiektua egiten hasiak dira

Aginagan frontoi berria izango dute hemendik urte batzuetara. Egitasmoa behintzat martxan jarria du Usurbilgo udalak. Duela hilabete batzuk zehaztu zuten nolakoa izango zen frontoia. Ideia lehiaketa bat besterik ez zen izan, baina orain ideia hori proiektu bihurtzeko lanean ari dira ideia lehiaketako irabazleak.



Frontoi berri honek erabat aldatuko du Aginagako kaxkoa. Lehen eskola txikia zena bota eta frontoia eraikiko dute leku horretan. Horrez gain, plazari zati haundi bat kenduko zaio, frontoia ez baita nolanahikoa izango. Pelotaleku estalia izango da, 10 koadro ingurukoa eta eserlekuak izango ditu. Hori bai, euria ez sartzeko beste estalki txiki bat jarriko da irekita egongo den aldean.

Gaur egun proiektua egiten ari dira ideia lehiaketa irabazi zutenak, baina bien bitartean udala hasi da mugitzen. Plaza ondoan, hormaren atzean, dagoen jardinaren zati bat erosteko hitzezko hitzarmenera iritsi da dagoeneko. Izan ere, frontoia egiteko plazari zati bat kenduko zaionez, orain Mayoztarren lurrak diren horretan beste plaza bat egiteko asmoa dute.

Frontoia egitean, beraz, ekar lotutako hiru plaza izango dira Aginagako kaxkoan: eliza zaharraren aurrean, oraingo plazaren atzeko aldean bestea eta Mayoztarren lurretan hirugarrena. Azken honetan, dema plaza txiki bat jarriko dute seguruenik. Udaleko ordezkarien ustez datorren urtean eraikuntza lanekin hasteko aukera izango da.



TXOTXETIK

Urte guztian egunero
irekita astelehenetan ezik

AGINAGA
SAGARDOTEGIA

Elexpe
Estetika zentroa
Tatuaiak
Betileen trukaketa
eta permanentea
Estetika
Solariuma

Monalurra 2
20170 USURBIL
☎ 943 37 04 62

ileapaindegia

Ondo pasa San Praixkuak!

ANGULAS
MANTEROLA



Telf: 943 36 07 77 Faxa: 943 36 35 85
Aginaga

San Praixku jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu
aginagatar guztioi!

Haiek gara

Nolakoak ote ziren garai bateko San Praixkuak? ezagutu zituztenak gauza batean, behintzat, bat datoz; orain ez bezalakoak. Guztia pekatu zen garai hartan, seme-alaba bihurri samarrak izatea gurasoen errua zen eta halako seme-alabak zituena kondenatu egiten zuten. Baina, zer zen, ba, bihurri samarra izatea? Iluntzea eta gero etxeratzea edo balsa dantzatzea, esaterako. Baina hori ez zen oztopo primeran pasa eta festaz bete-betean gozatzeko, hori bai, "bihurrikeriak" izkutuan.

Duela 60 bat urteko San Praixkuetan pultsolari lehiaketak garrantzi handia zuen eta pisuak altxatzen oso iaioa zen Eleuterio Errasti. Aginagan bertan izan ziren Euskal Txapelketetan hirutan garaile suertatu zen, 1959, 1960 eta 1961ean, 135 kiloko altxaldiak egin zituelarik.

Atzera begira jarri eta duela 60 bat urteko San Praixkuak nolakoak ziren jakiteko, ezinbestekoa da festak antolatzen aritzen zen Aginagako koadrila bat aipatzea. Lagun talde hau 16 mutilek osatzen zuen eta hauek ziren festaren motore nagusia. Talde hartan zegoen Joxe Mari Errastik Noauari kontatu zionez, bakoitzak duro bat jartzen zuen jaiero eta bildutako diruarekin eta Usurbilgo Udalak ematen zizkien 16 pezetarekin antolatzen zituzten festak.

Eta nolakoak ziren, ba, festa haiek? galdera entzun bezain pronto aurpegia argitzen zaie orain hain gazte ez diren haiei; ederrak. Arratsaldeko lauetarako musika nagusitzen zen plazan eta musikarekin batera dantza, orduan denek dantza egiten baitzuten. Gaueko 23.00tarako etxera erretiratu beharra zegoen eta horren ardura Pello agoazilak zuen. Ordu horretarako plaza hustu beharra zuen Pellok eta ederki betetzen omen zuen bere lana. Beraz, plazan, behinik behin, ordu horretarako festa akabo! Batzuk etxera joaten ziren zintzo-zintzo gurasoen esanei kasu eginaz. Beste batzuk, pribilegiatuenak, festan jarraitzeko parada izaten zuten tabernetan, Ezpala-Berrin, Etxebesten, Galardin edo Ehizan.

Festa, gehienbat, Ezpala-Berrin nagusitzen omen zen, bidean bertan, orduan ez baitzen kotxeen arriskurik, egunean kotxe bat edo pasatzen omen zen Aginagako bidetik. Han dantzan beste pixka bat egin eta ordubata aldera edo, denok etxera.

Karroza benetan dotorea

Garai bateko festak gogoratzean, aginagarrek bereziki oroitzen dute urte batean izan zen karroza. Festak antolatzen zituen koadrilak, karroza benetan dotorea prestatu zuen San Praixku egunerako. Idi gorri dotore batentzat gurdia prestatu eta hilerri aldean bildu omen zuten lurruntza, gurdia apain-apain jartzeko. Karroza barruan, berriz, Elgoibarko musika talde ospetsu bat eraman behar zuten.

Dena prest zegoenean, karroza hartu eta tren geltokira gerturatu ziren musikarien bila. Joxe Mari Errastik ondo gogoan du nola izan zen guztia, "*Karrozan eraman genituen hiru musikari eta*

iak, haiek!

txapak jartzen zituen laugarren bat. Gainera, karrozan ni eta Agustin Lertxundi ere joan ginen, neska-mutilez jantzita. Ni neska nintzen, bata txuria, ilean lazoa eta zapata txuri-txuriekin. Gustura barre egin zuten guztiek". Laugarren musikaria, berriz, asto gainean zeramaten alboan, *"astoari 3 laranja zintzilikatu genizkion buztanetik, ederki pasa zuten guztiek!".* Izugarrizko jendetza inguratu zen Aginagara egun hartan, zumaiarrak, oriotarrak, usurbildarrak, zarauztarrak...karroza atzetik jendetza zioan prozesio baten gisa, Joxe Mariren hitzetan *"manifestazio bat zirudien"*.

Ibilbidea Ezpala-Berrin hasi eta plazan amaitu zen. Behin plazara iritsita, balsaren ordua zen. Garai hartan debekatuta zegoen dantza mota hau, baina Elgoibarko musika taldeak honetarako baimena bazuen. Balsa dantzatzen zuen orori pezeta bateko zigilua edo txapa jartzen zion elgoibartar batek eta hala diru mordoska biltzen zuten. Elizak balsa pekatu zela uste bazuen ere, fraileak berak zoriondu zuen karroza hura, *"festa jartzea hau da"* esanaz.

Oilasko jokua plazan

Oraindik orain badira gordetzen diren ohiturak ere, oilasko biltzearena, adibidez. Hala ere garai hartan oilasko jokua egiten omen zen. Aginagako plazan zulo bat egin eta oilaskoa bertan sartzen zuten gazteek, oraindik lurra baizegoen plazan, zementua gerora bota zuten. Oilaskoaren burua kanpoan utzi eta erdian zuloa zuen ohol bat jartzen zioten gainean. Burua zulotik atera, zapi batekin tapatu eta aurreskua dantzatzen zioten oilaskoari, ondoren ezpata batekin lepoa mozteko.

Baina festa eta pekatua hain gertu zeuden garai hartan, gauzak ez ziren errazak. Arratsalde batean gazteak plazan dantzan zebiltzala, Pello agoazila etorri eta denak handik bota zituen, pekatariak baitziren. Baina gaztea beti gazte eta 40 neska-mutil haiek, autobusa hartu eta Orio aldera joan ziren, bals egarriz. Orioko herriak baimena eman arren, Usurbilgo alkatearen agindua haraino iritsi zen eta handik ere bota egin zituzten. Hurrengo egunean Udaletxera deitu zituzten "pekatari" guztiak, kartzela zigorrarekin mehatxu eginaz. Baina gazteak izanagatik inozoak ez zirenez, jakin zuten alkatea bera nola ixildu.

Badago atzera begiratu eta zer ikusia eta zer ikasia. Espazio zabala beharko genuke pasadizo guztiak kontatzeko, aurtengoz, beraz, nahikoa da. Gora San Praixkuak, lehen, orain eta gero!

TXAPARTEGI HARATEGIA

BERTAKO HARAGIA

Ondo pasa San Praixkuak!

Aginaga auzoa Telf: 943 36 19 07

SEKAÑA ERRETEGIA

BEREZITASUNA:
Txerrikumea-Txuleta-Arraia

Astelehenetan itxita Telf: 943 36 27 73

A. BRUÑO E HIJOS S. L.
ANGULAK ETA ITSASKIAK

ANGULAS Y MARISCOS
A. BRUÑO E HIJOS, S.L.

Menu ezberdinetako aurrekontuak egiten ditugu

Egin ezazu zure eskaera telefonoz:
943 37 27 88 USURBIL
Legarde Kaleko Zumartegi



- Angulak
- Langostinoak
- Langostak
- Nekorak
- Lanpernak
- Txangurroa
- Zentoiloa
- Mixera
- Almejak
- ...

7000 pzta.

Ondo igaro San Praixku jaiak!

Hilerri berrian lurreko farola atera eta bi kristal haundi puskatu dituzte

Ez da denbora asko pasa hilerri berria bukatu zutenetik, baina dagoeneko informazio iturri bihurtu da. Ez laster inauguratuko dutelako, ez eta erabiltzen hasi direlako ere, abuztuan bertan ezezagun batzuek zenbait txikizio egin dituztelako baizik.

Hilerri berri inguruko lurreko farola bat atera eta kapilako bi kristal haundi apurtuta azaldu ziren pasa den abuztuan. Ez dakite nortzuk izan diren ezta txikizio honen arrazoia zein den ere, baina hilerri berria erabiltzen hasi aurretik hasi dira arazoak.

Joxe Antonio Altuna alkatearen esanetan ez dute ulertzen puskatze hauen arrazoia. *"Hilerria herriarena da, eta hori egin dutenak herritarrak badira beraien gauzak ari dira puskatzen. Ez dakigu noren eta zeren kontra egin duten, baina herriaren kontra egindako txikizioak dira horiek. Hau egin dutenak beraien aurka ari dira, eta zerbait dakienak ez du salatzeko beldurrik izan behar".*

Atalluko sei lur zatiak enpresa ezberdinei emateko lehiaketa aurrera doa. Hala ere, pasa den irailaren 19an egin zen udalbatzan udalari zegokion lur zatia lehiaketatik kanpo uztea erabaki zuten. Lur zati hori udalari dagokiona da, lurzatiaren %10a bere esku gelditzen baita. Lur horrekiko herriko zenbait enpresek duten interesa ikusita, lehiaketara ez ateratzeko erabakia hartu dute. Herriko enpresen zenbait arazo konpondu ahal izateko erabili nahi ditu udalak lur horiek, nahiz eta denbora batera lehiaketan jartzeko aukera izango duen.

Herrian egingo dituzten etxebizitza berrien kontua ere aurrera doa pixkanaka-pixkanaka. Artzabalgo plan partziala onartu dute dagoeneko eta Sindikatu inguruan etxebizitzak egiteko dena prest dago. Potxonekoekin, Tomasenekoekin eta Errekondotarrekin beraien lurrak erabili ahal izateko akordio batera iritsi da udala. Honela, hor dauden baratzak erabili ahal izango dituzte Sindikatu inguruko etxebizitza horien urbanizazioa egiteko, eta bide batez Tomaseneren aurrean dagoen txabola botatzeko erabakia ere hartu dute

ALKORTA
HARATEGIA
Etxeko berezitasunak:
· Oholkiak
· Txorixoak
· Kroketak...
Beheko kalea, 4
Atxegalde ☎ 943 36 57 42

TABERNA-JATETXEA
ANTXETA
EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL
TEL: 943 37 03 44

BORDATXO
EDARITEGIA
PINTXO BEREZIAK
Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

Patxi Segurolaren estradizio eskaerari ezezkoa eman dio Frantziak

Pariseko Apelazio Auzitegiak Patxi Segurola usurbildarraren estradizioa ukatu zuen pasa den irailaren 20an. Espainiako Entzutegi Nazionalak Loiolako kuartel militarraren aurkako atentatu batean parte hartzea leporatzen dio, baina Frantziako auzitegiak uste du ez dela froga nahikoa aurkeztu. Izan ere Luis Gorriti usurbildarraren deklarazioak bakarrik aurkeztu zituzten froga gisa.

Irailaren 16an izan zen Patxi Segurolaren aurkako estradizio epaiketa. 1991ean Loiolako kuartel militarraren aurkako atentatuan parte hartu izana leporatzen zion Espainiako Auzitegi Nazionalak. Patxik, ordea, ekintza horretan parte hartu izana ezeztatu zuen.

Yolanda Molina bere abokatuaren esanetan estradizioa eskaera gauzatzeko arrazoirik ez zegoen. *"Luis Gorriti damutuak atxilotua izan zenean esandakoak bakarrik aurkeztu dituzte froga gisa. Baina honek esandakoa ez da egia, bere askatasuna erosteko esan baitzituen esandakoak. Atxilotu eta bi urtera aske utzi zutela baino froga hoberik ez dago".*

Espainiako Entzutegi Nazionalak Luis Gorritik esandakoa egiaztatzen zuen frogarik ez zuen aurkeztu, eta Frantziako Apelazio Auzitegiak Patxi Segurolaren estradizio eskaerari ezezkoa eman zion pasa den irailaren 20an.

Usurbildarrak beste estradizio eskaera bati aurre egin beharko dio orain, egun hauetan aztertuko baita gaiztagin elkarteko kide izatea leporatzen dion eskaera.

Herriko enpresetan euskararen egoera aztertuz

Herriko enpresetan euskararen egoera aztertzeko erabakia hartu du udalak. Horretarako lehiaketa egingo da, oinarriak onartu dira dagoeneko. Izena emateko epea 15 egunekoa izango da, irailaren 27tik urriaren 14 arte (biak barne), eta eskatutako baldintzak jarraian ditzuen hauek:

- Lan honetan esperientzia izatea frogatzea.
- Enpresetan euskararen egoera aztertzeko aurreiproiektua.
- Lan hau euskararen diagnosia enpresetan egiteko izango da.
- Aurreproiektua euskaraz aurkeztuko da.
- Lanak idazkaritzan aurkeztuko dira.
- Eskatzaileak esperientzia izatea frogatu beharko du agirien bitartez. Era berean "curriculum"-a aurkeztu beharko da.
- Epaimahaia udalak eta gai hauetako adituek osatuko dute.
- Epaimahaia urrian bilduko da, eta azaroan jakin ahal izango da beka jaso duenaren izena.
- Bekaren zenbatekoa: 1.000.000 pezeta. Lana hasterakoan erdia eta amaitzean beste erdia.
- Lana egiteko epea 4 hilabetekoa izango da.
- Egindako lanaren jabe udala izango da eta argitaratzeko ahalmena izango du.

gorriti
EDARITEGIA
kafe berezia
San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70
20170
USURBIL


TXIRIBOGA
TABERNA
pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak
Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

Teresa Altunaren piperrak irabazle I. Piper Egunean

Sagardo eguna, Erle eguna eta hemendik aurrera Piper eguna ere bai noski. Pasa den irailaren 24an piperra izan zen protagonista herriko frontoian. Bertan, Mikel Garmendia eta Manuel Piñeiro sukaldariek piperrez prestatutako 9 pintxo ezberdin jateko aukera izan zen. Herriko Piper lehiaketan, berriz, Teresa Altuna Urdaiagakoa izan garailea.



Pintxoen arrasto haundirik ez zen behintzat gelditu. Piperra frijitzeko edo babarrunen lagungarri modura jateko ezezik, pintxoak egiteko erabili daitekeela argi utzi zuten Mikel Garmendia eta Manuel Piñeiro sukaldariek. Piperra erabiliz 9 pintxo ezberdin egin zituzten, eta frontoira agertu zirenen gustoko izan zirela nabaria zen, bazkal ordua gerturatzerako ia bukatu baitziren piper tortila eta gainerakoak.

Piper lehiaketan herriko 11 ekoizle hauek aurkeztu zituzten euren piperrak: **Kontsuelo Ibargoien, Iñaki Labaien, Antonio Agirre, Pako Orbegozo, Matias Pagola eta Alex Udabe, Andres Iribar, Mirotz Arrospide, Teresa Altuna, Gines Ibarra, Joxe Pagola eta Pedro Mari Matxainek.**

Piperraren tamaina, itxura, kolorea eta zaporea (gordinik eta frijituta) hartu behar izan zuten kontuan epaimahaia osatzen zuten **Joxe Luis Iparragirre**, **Kontsuelo Ibargoien** eta **Jakoba Errekondok**. Azkenean **Teresa Altunaren** piperrak eskuratu zuten lehen postua, **Mirotz Arrospidek** aurkeztutakoek lortu zuten bigarren postua eta **Antonio Agirrerenak** hirugarrena.

Egunari amaiera emateko, berriz, duela 45 urte inguru piperra landatzen hasi zen **Kontsuelo Ibargoieni** oroigarri bat eman zitzaion piperra herrian sustraitzeko egin zuen lehen ahalegin hura eskertzeko.

Josu Aranberri

TXARO ARTZE ILEAPAINDEGIA

Buru-azalaren zainketa
Ile-apainketa

Etxebeste, 3 *Tel. 37 16 85*

Zumeta Jatetxea

ZUMETA JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK
(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz.
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez.
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piliko piperraz haragi saltsetan.
- Etxeko azkenburukoen dastapena
- Ogia eta kafea

3.675 pzta. (pertsoneko)

KONPONKETAK

Giltzak kopiatzen ditugu!

ALDAMU

Zapatak,Kanpinak, Kremailerak (poltsak, zamarrak, galtzak...)

Kale Nagusia, 2 Tel: 943 37 27 95

Eskubaloian lau talde aurten arazo askoren ostean

Denboraldia hasi berri den honetan, herriko kirolarien errepasoa egin nahian abiatu eta ondorioa garbia izan da: herriko kirola gainbehera doa. Eskubaloian makina arazo izan dituzte taldeak osatzeko, baina azkenean lau talde izango dira aurtengo denboraldian. Oso bestelakoa da futbolaren egoera, auskalo non gelditu diren iazko lau taldeak! aurten neskek bakarrik osatu baitute taldea.

Herrian aurten eskubaloiko lau talde izango ditugu, 2.nazionaleko mutilen taldea, jubeniletan nesken eta mutilen taldeak eta kadete mailako mutilen taldea. Azkenean lau talde osatzea lortu badute ere, ez dute lan erraza izan Eskubaloi Taldekoek, iaz jokatu zuten askok alde batera utzi baitute eskubaloia eta atzetik datorren harrobia ez baita oso indartsua.

Eskubaloi Taldeko lehendakaria den **Juan Manuek Etxabek** adierazi digunez, *"aurten zaila izan da taldeak osatzea, 2.nazionalean, iaz sasoi betean aritu ziren askok eskubaloia utzi dute eta jende gutxirekin geratu gara. Garai batean 28 edo 30 urte genituen arte jo ta ke aritzen ginen jokatzen, gaur egun 21-22 urteko gazteak, kirolerako sasoian daudenak utzi egiten dute"*. Azkenean maila honetako taldea osatzea lortu dute jubenil batzuk igo direlako eta iaz kanpoko taldeetan aritu ziren usurbildar batzuk herriko taldera bueltatu direlako.

Jubeniletan ere panorama ez da batere ona, nesken taldera 2.urteko kadete batzuk igo dira eta Orio eta Hernani aldetik etorritako beste jokalari batzuekin osatu dute azkenean taldea. Mutilak ere, ez dira asko, 12-13 bat, Etxaberen hitzetan, *"denboraldia luzea da eta lesioak hasten direnean ez dakit nola moldatuko garen"*. Kadeteak, berriz, 11 besterik ez dira.

Gazteek nahiago dute kirola bere kasa egin talde batean serioski aritu baino.

Honek guztiak zer pentsatua ematen du. Eskola Kirola, haurrek ikastola garaian egiten dutena, nahiko arrakastatsua izanik, nola ulertu taldeak osatzeko arazo hauek? Eskola Kirolak aukera zabala eskaintzen dio haurrari, aldi berean kirol ezberdinetan aritzeko aukera. Ondoren, dagoeneko hain haurra ez den horrek kirol bat aukeratu behar duenean sortzen dira arazoak. Batzuk

JARRI HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Deitu 943 36 03 21 telefonora

TXURRUT TABERNA

Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel:943 36 00 80

kirola egiteari uzten diote eta jarraitzen dutenak ez dute luzerako egiten, 21 urte inguru arte edo. Jose Manuel Etxaberen iritziz, "*gazteak gero eta indibidualistagoak bihurtzen ari dira, nahiago dute kirola bere kasa egin talde batean aritu baino. Talde batean jokatzeak konpromezua dakar, entrenatzera joan beharra, asteburuero partida...gazteek nahiago dute lagunartean jokatu, palaz aritu, korrika ibili...baina loturarik gabe, gogoa dutenean bakarrik*".

Honez gain, jaiotze-tasak ere badu zeresanik honetan guztian. Batetik, gazteek kirola egiteari uzten diote, baina, bestetik, atzetik datozenak ere ez dira asko. Gero eta haur gutxiago dago eta hori kirol taldeek nabaritzen dute. Taldeak osatzeko gutxieneko kopuru bat beharrezkoa da eta nahiz eta haur batzuk kirola egiteko gogoz gerturatu, kopuru nahikoa ez badute osatzen alfer-alferrik da. Adibidez, datorren urtean arazo hau izango dutela uste du Etxabek, "*datorren urtean kadete asko jubenil mailara igoko dira eta atzetik jende gazteagoa ez datorrenez, kadeteen taldea ateratzeko arazoak izango ditugu*".

Herriko eskubaloia, beraz, ez dago bere momentu onenean eta Eskubaloi Taldeko lehendakariak penagarria dela deritzo, "*oso garrantzitsua da kirola egitea, izerdi pixka bat atera, lagunartean egon, ondo pasa...*".

Herriko gazteei galdetu behar zer dela eta eman den aurten gainbehera hau. Badirudi 20 urtera arte edo, gazteak jo ta ke aritzen direla kirolean Bidasoara edo Realera iritsi nahian eta behin bide hori istean kirola egiteari utzi eta petrilean esertzen dira, arratsalde pasa. Eta arratsaldero petrilean ematen dituzten lau orduetatik bi entrenatzen emanez gero?

Amagoia Mujika

Futbolean nesken taldea bakarrik izango da

Azken asteotan guztien ahotan dabilen gaia da herriko futbol taldeena. Iaz lau talde izan ziren, Errejional mailako neskak eta mutilak, jubeniletan mutilak eta kadete mailan mutilak. Denboraldia hasi eta guztien harridurarako neskek bakarrik atera dute aurrera taldea, beste hiru taldeak desagertu egin baitira.

Errejional mailako mutilek iaz ez zioten lehenengo mailari eutsi eta errejionaletako 2. mailara jaitsi ziren. Aurten, 14-15 bat baino ez dira elkartu eta azkenean taldea bertan behera gelditu da.

Kadeteak, berriz, iaz denboraldi benetan txukuna egin zuten, igoera fasean aritu baitziren. Kadete gehienak 2. urtekoak zirenez, aurten jubenil mailara igo eta ez da jende nahikoa elkartu taldea osatzeko.

Harrigarriena jubenilekin gertatuakoa izan da, berez lehendakaritzak jende nahikoa bilduko zela espero bazuen ere, ez da hala izan. Deialdi pare baten ostean eta jendea bildu ez zutenez, jubenilen taldea ere bertan behera geratu da.

Azkenean neskek bakarrik osatu dute taldea, errejional mailako taldea. Beste taldeetan ez bezala, hauek jendea soberan bildu dute, inoiz baino jokalari gehiago baitaude, 22 guztira. Kontraesankorra benetan. Aurten, beraz, neskak gogoz animatu beharko dira, merezi dute eta.

Kinkildegia
Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa,
haurren jantziak,
etxerako behar dituzunak
Aritzeta 1 behea,
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

Kalkos kopisteria
Fotokopiak
Fotokopiak koloretan
Plastifikazioak (DIN A2 arte)
Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
Planoen kopiak (AO arte)
Ordenadoreko lanak
Enkuadraketak (wire-o, kiribilak,liburua)
Zure argazkia puzle batean
Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria
Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

ARRAINDEGIA
PELLO
Arizeta Kalea,1
Tlf 36 21 64
USURBIL

izerdi patsetan

Haimar Zubeldia Euskaltel taldean arituko da beste hiru urtetan

Haimar Zubeldiak Euskaltel taldearekin jarraituko du 2003. urte arte. Banesto, Once eta kanpoko zenbait talderen eskaintzak jaso baditu ere, Urdaiagakoak profesionaletara pasatzeko aukera eman zion taldearekin jarraituko du beste hiru urtez. Talderen batek eraman nahi badu 75 milioi pezeta oraindu beharko ditu hemendik aurrera.



Haimarrek zeresan haundia eman du azken hilabete hauetan. Euskal bira irabazi eta Dauphine Liberen bigarren postua eskuratu ondoren ezskaintza ugari jaso ditu Urdaiagakoak. Espainiako itzulian zegoela, ONCE eta Banesto taldeek datorren urterako euren txirrindulari taldean nahi zutela zabaldu zutela zabaldu zen komunikabideetan.

Hala ere, usurbildarrak Euskaltelen jarraitzea erabaki du. Lehendik sinatuta zeukan kontratuan beste urtebete gelditzen zitzaion, baina orain beste bi urtez luzatu du kontratu hori. Euskaltelen jarraituko duela baieztatu zenean lasai zegoen Haimar. *"Batez ere kirol arloaz hitz egin genuen, eta Euskaltelek duen proiektua atsegin dut, konfidantza ematen dit. Ekonomi aldetik, berriz, ez zegoen arazorik"*. Diru aldetik beste taldeen eskaintza hobeak jasoak zituen, baina berak Euskaltelen jarraitu nahi izan du.

75 milioiko etetze klausula

Hemendik aurrera Haimar Zubeldia 2003 urtea baino lehen bere taldera eraman nahi duen txirrindulari taldeak 75 milioiko klausula ordaindu beharko du. Hala ere, ez du klausula hori erabiltzeko asmorik, *"hiru urterako siñatu badut urte horiek betetzeko da"*.

Espainiako itzulian maila polita eman zuen 23 urteko txirrindulariak. Lehen etapetan "abanikoen" ondorioz minutu batzuk galdu bazituen ere, ondoren postuak berreskuratzen joan zen, eta 10.postuan bukatu zuen Madrilen amaitu zen itzulia. Bere esanetan fisikoki uste baino hobeto bukatu du itzulia. *"Fisikoki ondo bukatu dut. Azken astean txispa falta zitzaidala nabaritzen nuen, baina okerrago bukatukonuelakoan nengoen. Etapak motzagoak ziren, eta horregatik ez naiz hainbeste nekatu"*. Hala ere ekainauztaileko laisterketak nahiago dituela aitortu du usurbildarrak. *"Euskal bizikletan eta Dauphine Liberen Espainiako itzulian baino indartsuago sentitu nintzen"*.

Espainiako itzuliaren ondoren, ordea, ez du atsedenik hartu. Cuencan hirugarren postua eskuratu zuen eta gero Naranco-ko igoeran izateko asmoa du. Izan ere, aurten Frantzian, Bretañana hain zuzen ere, izango den Munduko txapelketan parte hartzeko aukera izango du

Josu Aranberri

Euskal Herriaren desmilitarizazioa, nahia eta premia

Pasa den irailaren 13an "Euskal Herriaren desmilitarizazioa, nahia eta premia" izenburua daraman adierazpena eta Eudimaren (Euskal Udal Intsumituen Mankomunitatea) inguruko informazioa emateko hitzaldia izan zen pleno aretoan. Bertan hizlari izan ziren Xabier Orbegozo EUDIMAko udal ordezkaria eta Fermin Vila EUDIMAko arduraduna. Bertan, Euskal Herriaren desmilitarizazioak daukan garrantzia eta prozesu honen premiaz jardun zuten.

Udalak intsumisioarekiko duen konpromezua ez da gaur goizekoa. Intsumisioari bultzada emateko lehen urratsak 1988ko azaroan eman zituen herriko udalak, Espainiako armadari ez laguntzeko erabakia hartu baitzuen. Orduz geroztik aurrerapauso ugari eman dira. 1996an EUDIMA (Euskal Udal Intsumituen Mankomunitatea) sortzeko konpromezua hartu zuen eta baita gauzatu ere, urte hartatik oztopoak oztopo desmilitarizazioaren alde lanean ari baita EUDIMA.

Garai hartan zerbitzu militarraren aurkako borroka indarrean zegoen eta kode penal berri bat ezarri zuten mugimendu honen aurka. Honek ondorio latzak ekartzen zituen intsumituentzat eta berrikuntza horiei aurre egiteko mugimendu antimilitaristako agente sozial modura sortu zen EUDIMA.

Fermin Vila EUDIMAko arduradunaren esanetan Euskal Herriak zerbitzu militarraren kontrako borroka irabazia du. *"Gure ustez borroka hau ezin zuela gelditu ikusita, Estatu espainiarrak judizialtasun bidea hartu zuen. Zerbitzu militarraren borroka ezerezean uzteko eta borroka horri edukinak kentzeko inabilitazioa sortu zuen".*

Borroka irabazia egonda ere, inabilitazio hori gainditu beharra zegoen, eta horretarako tresna bat bilatzea izan da erakunde honen helburua. Herrietako eragile sozial, politiko eta sindikal guztiei herri akordio bat proposatu zitzaien hauek hiru konpromezu hartu zitzaten:

1- Desmilitarizazioaren borrokan konpromezu berriak hartzea.

2- Gazte bat inabilitatua izaten zenean hori ezerezean uzteko bitarteko guztiak jartzea.

3- Espainiar eta Frantziar armadekin ez kolaboratzea.

Desmilitarizaio aldetik, berriz, EUDIMAk ezinbestekoa ikusten du prozesu berri bat martxan jartzea. *"Herri hau militarizatuta dago eta horren ondorioz hemen gatazka politiko bat dago. Gatazka hori konpontzeko ezinbestekoa da desmilitarizazio prozesu bat martxan jartzea. Izan ere, gaur egungo egoeran hainbat proiektu aurrera ateratzea ezinezkoa da. Honekin Euskal Herria eszenatoki politiko berri batera eraman nahi dugu, bertan herritarrok Euskal Herriaren etorkizuna libreki erabakitzeko baldintza demokratikoak izango ditugun eszenatokira hain zuzen ere".*

Eragile sozialen laguntzaren zain

Gaur egungo marko honetan estatu espainiarretik EUDIMAk jasan dituen erasoak asko izan dira. Desmilitarizazio proiektua aurrera ateratzeko oztopoak besterik ez dizkiete jartzen, eta aurrera egiteko eragile sozialen laguntza beharrezkoa dute Ferminen esanetan. Horretarako herriko eragile sozialek hiru puntu hauek jasotzen dituen agiria sinatzea besterik ez dute eskatzen:

1- Euskal Herri desmilitarizatua eraikitzeko Euskal Herriko Udal Intsumisoen Mankomunitatea egiten ari den lanari, oniritzia azaldu.

2- Udalei EUDIMAn sartzeko eginbeharrekoak egin, eta Euskal Herriko auzo eta herriek jasaten duten militarizazio egoerari aurre egiten hasi daitezela lehenbailehen.

3- Udalbiltza osatzen dutenei Euskal Herria jasaten ari den militarizazioari aurre egiteko gauza izango diren iharduerak martxan jarri ditzatela.

Herriko baserritarrak bat datoz: "Aurtengoa ez da sagar urtea"

Dagoeneko hasiak dira baserritarrak edo hastear izango dira beste batzuk sagar biltzen. Usurbilen baserri asko daude bere sagastiak dituztenak, baina denetara joatea zaila egiten zaigunez, Urkamendi, Zumitza eta Aldatza baserrietara joan gara sagardogintzaren lehen lanaren nondik norakoak ezagutzera. Orokorrean, aurtengo urtea nahiko txarra izan dela diote guk elkarrizketatutako baserritarrek. Aurreko urteekin alderatuz, sagar gutxi eman dute sagardotarako sagarrondoz osatutako sagastiek. Etxeko kontsumorako kupela betetzen dutenak egon badaude egun Usurbilen, baina askok inguruko sagardogileei saltzen dizkiete bildutako sagarrak.

Gaur egun baserrietan sagardo gutxi egin ohi da; oro har, etxerako eta ingurukoentzat adina izaten da. **Juan Zubeldia Zumitzak** horrelaxe aitortu digu. " *Sagarrak lan asko du, eta ordainak berriz oso gutxi. Guk 100 sagarrondo inguru ditugu baserrian, gehienak sagasti berriak dira. Emanaldi ona denean, 10.000 kilo sagar inguru biltzen ditugu, baina aurten askoz kilo gutxiago bilduko ditugula uste dut. Sagarrondoek lorealdia ona izan zuten, baina udaberri kaxkarra egin du eta horrek ez die sagastiei batere onurarik ekarri*".

Urkamendi baserrikoek ere eguraldiak etab.ek sagar kopuruan zeresan haundia izan duela adierazi zuen. "*300 sagarrondo inguru ditugu, gehientsuenak zaharrak. Hutsuneak izaten ditugunean, berriak landatzen ditugu, baina orokorrean oso gutxi. Garai batean gehiago arduratzen ginen, baina gaur egun ere kostuak asko haunditu dira. Emanaldi ona dagoenean, 20.000 kilo biltzen ditugu, baina aurten askoz gutxiago izango diren errezeloa dut. Pilarika inguruan hasiko gara sagar biltzen azaroa bitartean, sagardozaleak hasten diren garaian hain zuzen*".

Herriko baserritarrak ezkor agertzen badira ere, **Jose Anjel Aginaga**, Gipuzkoako sagardogile elkarteko lehendakaria, nahiko baikor dago. Gipuzkoa mailan, lau milioi kilo sagar bilduko direla uste baitu, iazko kopurua zertxobait haundituz, lehengo urtean 3.800.000 kilo sagar bildu baitziren.

Sagardotarako sagarra, berez eroria izan edo arbola moildu eta jausia izan, eskuz edo kizkia bidez eta sarea edo kirtendun saskiaz biltzen da. **Jose Anjel Aginagak** aipatu digunez, Usurbilen kizkia bidez biltzen da gehienbat sagarra, nahiz eta eskuz biltzen dutenak egon badauden; Zumitza eta Urkamendi baserriak kasu. Sagarra biltzerakoan kontu haundia eduki behar dela dio Jose Anjelek, sagarra zulatu edo hondatu ez dadin, zauri hauek gaitz eta arazoen iturri izan daitezkeelako. Kizkiak berak arazoak ekar ditzazke, izan ere, sagarrari zulo txikiak egiten baitizkio eta zulodun sagarrak denbora luzea ematen badu biltegian gaixotu egin daiteke.

Jose Anjel Aginagak aurten Gipuzkoa mailan 4.000.000 kilo sagar bilduko dela espero du

Zapore guztietako sagarrak erabiltzen dira

Sagar motari dagokionez, sagarra nolakoa, sagardoa halakoa. Zapore guztietako sagarrak erabiltzen dira; gozoak, gezak, garratzak, gezaminak, etab. Sagardogile bakoitzak, nahi bezalako sagardoa lortzearren, egokia iruditzen zaion sagar-klaseen nahasketa egiten du. Sagar-klase

bakoitzak sagardoari ezaugarri bereziak ematen dizkio. Baserri, sagardotegi, herri edo bailara bakoitzean ohitura bereziak daude sagar-klaseak nahasterakoan; honela, leku bakoitzean sagardo desberdina izan ohi da.

Usurbilen, esaterako, gezamina da gehien erabiltzen den sagar mota. Jose Anjelek aipatu zuenez, "*Usurbilgoa barietadte ona da, nahasteko batez ere*". Honez gain, beste sagar mota hauek ere erabiltzen dira: txalaka, urtebila, goikoetxe-sagarra, potzolua eta errege-sagarra.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentutik honako hau gomendatzen dute: urriaren bigarren hamabostaldian ondo heltzen direla sagarrak txalaka, mokoa, gezamiña, mozoloa, goikoetxea, urtabi haundia, urtabi txikia, urdin eta errezila dira. Beraz, herriko sagardogileak eta baserritarrak ondo dabiltza sagarra aukeratzerakoan. Hala ere, Jose Anjelen arabera, "*sagar-mota aukeratzerako orduan, sagarra bera baino, askoz garrantzitsuagoa da sagarraren osagai funtsezkoak diren ph-a eta polifenolak ondo egotea. Hau da, sagarrak ph baxua izatea eta polifenola altua izatea. Bi osagai hauek ondo badaude, edozein sagar-mota erabili daiteke sagardoa egiteko*".

Sagasti-kopuruen arabera-ko sailkapena Gipuzkoan

HERRIA	m^2	Sag. kopurua
Hernani	561.500	16.382
Donostia	297.516	9.482
Aia	304.900	9.117
Oiartzun	359.520	8.996
Azkoitia	202.250	8.964
Bergara	144.401	8.606
Deba	282.000	8.078
Urnieta	323.800	8.078
Zestoa	252.200	6.905
Andoain	236.200	6.648
Usurbil	186.000	6.564

Azken urteetan bildutako sagar kopurua Gipuzkoan

URTEA	Sagar kiloak
1996	6.000.000
1997	3.000.000
1998	3.500.000
1999	3.800.000
2000	4.000.000 bilduko dela espero da

Iturriak: Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamendua eta Jose Anjel Aginaga

Oso gutxi dira etxeko kontsumorako sagardoa egiten dutenak, baserritar gehienak bildutako sagarra saldu egiten baitute. Urkamendi baserrian bi urtetik behin egiten dute sagardoa, eta Zumitzan, aldiz, aurten 100 litrotako kupela betetzea dute helburu senide eta lagunentzat. Garai batean ez bezala, egun aurreneko sagarrekin ez dute pitarra eta zizarra egiten. Ohitura hau dagoeneko galduta egon arren, sagardoaren kulturak gordetzen duen barrikotearen ohitura zaharra ez dutela galdu esan zigun Juan Zubeldiak. "*Eguberri aldera famili eta lagunartean kupeletik edaten dugu sagardoa, baina segituan boteilan sartzen dugu. Hamar edo hamabost bat egunez bakarrik izaten dugu irekita kupela*".



Antonio Iturraldek, Aldatza baserrikoak ere ohitura hau oraindik gordetzen dutela adierazi zuen, hala ere baserriko sagardoari etorkizun iluna ikusten dio. "*Zonalde honetan ia baserri gehienek zuten bere tolarea eta bertako sagarrez egiten zuten sagardoa eta pitarra. Garai batean pitarra asko egiten zen, jende asko biltzen baikinen. Gaur egun, ordea, ez da pitarra egiten, ezta sagardoa ere. Nik, pertsonalki nahiago dut, sagardoari ur pixkat bota eta kitto*".

Bestalde, gaur egun Usurbilen 6.564 sagarrondo inguru daude, 186.000 m^2 gutxi gora behera. Sagarrondo gehientsuenak zaharrak badira ere, azken urte hauetan sagarrondo berri asko landatu dituzte sagardozaleek, eta baita baserritarrek ere.

Agurtzane Solaberrieta

Zer diyo?

Aitziber Aranberri

❑ 21 urte
❑ Farmazia Fakultateko ikaslea

Unibertsitate euskalduna noizko?

Oporrak amaitu berri ditugunez, ikasketei begira hastea tokatzen zaigu askotxori. Motxila prestatzen hasi aste osoa etxetik kanpo pasatzeko, liburu eta kuadernoak erosi, ordutegiei begira hasi... horretan nagoela konturatu naiz aurten hartuko ditudan apunterik gehienak gazteleraz izango direla, eta ez nik nahi dudan bezala, euskaraz. Baliteke norbaitek pentsatzea nik aukeratu dudan bizitza profesionalerako prestaketa hartzera Euskal Herritik kanpora joan behar izan dudala, baina ez da horrela. Hemen bertan nago, hain zuzen Usurbildik ehun bat kilometrotara dagoen euskal Herriko hiriburuan, Gasteizen. Eta, noski, nire ikasketak Euskal Herriko Unibertsitatean egiten ditut, nahiz eta nire kasuan ez naizen unibertsitate euskaldun batetara joaten.

Ikasketa plan ofiziala aurrean hartuta eta datuei begira honako hau ikusten dut: bost urtetan egin behar ditudan derrigorrezko ikasgaien % 38,1 bakarrik egin ahal izango ditut euskaraz. Gainontzeko derrigorrezko ikasgai guztiak gazteleraz egitea inposatzen didate. Derrigorrezko ikasgai hauetaz aparte badugu beste sorta bat eta bertatik hainbat aukeratu behar ditugu. Ikasgai mota honetako % 7,4 soilik eskaintzen digute euskaraz, hogeitazazpi ikasgaietatik bi bakarrik hain zuzen ere. Azkenik, aipatu aukera askeko ikasgai batzuk ditugu eta gure ikastetxean eskeintzen zaizkigun mota honetako ikasgai guztiak gaztelaniaz dira. Hau da ikasketa planaren inguruan dugun panorama iluna.

Baina unibertsitatean bertan eskeintzen zaizkigun zerbitzuak ere ez dira askoz hobeak euskararen eta euskaldunon ikuspuntutik. Alde batetik, idazkaritzan egoten diren pertsonek ez dute euskaraz hitz egiten, ezta liburutegiko arduradunek ere. Hori gutxi balitz, lasai-lasai kafetegira joaten garenean, ebakiaren ordez "cortado" bat hartu behar izaten dugu.

Gezurra badirudi ere, horrelakoa da gure egoera, ez soilik Farmaziko Fakultatean, baita beste hainbat fakultatetan ere. Hala ere, esaera zaharrak dioen bezala, esperantza da mundu hontan galdu behar den azkenengo gauza, beraz, Euskal Herriko Unibertsitatea unibertsitate euskalduna izatea lortuko dugun esperantza ez dugu oraindik galduko.

XABIER EDARITEGIA
Etor zaitez, eta dasta itzazu Goierriko produktuak
✗ Idiazabal gazta
✗ Beasaingo odolkiak...
Kontseju zarra, 13 ☎ 943 36 04 66

MAHUKA
Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzu
Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

ORBELDI
MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009
ESTRELLA Aseguru Konpainia
Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako
Zubieurrensa, 10
Tlf. 943 37 18 07- Faxa.: 943 37 63 41

Bertsoak

Xabier Aranburu "Xomorrok" Herrera de la Manchatik

Txalapartaren "ttakun" soinua
Agiña osoan aditu.
Ta herritarrak jai dirade
pozaren ezin kabitu.
"Sutagar" ibil, egunez eta
"jotake" gauez aritu,
"San Praixku" jaiak sorginkeriak
bere erraietan ditu.

Txoritxo batek belarri ertzera
hona esandakoa neri:
"Frontoia" gora, "frontoia" behera
bada nahikoa komeri.
"Grafitiak" ta "pintadak" ere
nonhai omen ageri
oraingoz behintzat ezta faltako
Dantza eta errromeri.

Lehiaketa

Nola du izena baserri honek?

Asmatzaileen artean Antxeta tabernan bi lagunentzat afaria zozketatuko dugu.

Frontoi atzeko parkea guraso eta haurrez betea egoten da askotan. Iturria ere badago bertan, berezia gainera. Behin baino gehiagotan ikusi izan dugu etengabe ura botatzen, ez puskatua zegoelako, ura atera arazteko talkagailua altxa gabe zegoelako baizik. Baina aizue, guk jarritako argazkian ba al zegoen ba talkagailu hori? Ez horixe, hori zen guk eskatzen genuen erantzuna. Beraz, asmatzaileen artean zozketa egin ondoren **Borja Pulidok** izango du ARGIAk eskainitako bi sortetatik bat eramateko aukera. Zorionak!

PATRI
JATETXEA
Eguneko bazkariak eta afariak
Nagusia 6, Tel.: 943 36 27 25
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

Urtinea Elkartea
Loreak - Lore landareak
Lore sortak - Koroak
San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

Kale Nagusia, 9 USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13
LABE-GOXO
Ortodoncia - Gozotegia

Agenda

IRAILAK 30 larunbata

● San Praixku jaiak Aginagan

Goizeko 6,30etan **gosaria**, kroasan eta txokolatearekin.

7.00etan **oilasko biltzaileen irteera**.

14.00-15.00ak aldera **oilasko biltzaileen itzulera** herriko plazara, azken dantza saioa eta siestara.

20.00etan **buruhaundiak** eta hainbat munstro.

23:30etan **Izotz** taldearekin dantzaldia.

Gaueko onenean **rock kontzertu punkiya** eliza zaharrean.

URRIAK 1 igandea

● San Praixku jaiak Aginagan

12.00ak aldera **Aizperro eta Larretxea haizkolarien saioa Egi eta Telleria harrijasotzaileekin** batera.

Ondoren **XVIII. Toka txapelketa** Aldi berean **pelota finalak** frontoi txikian.

17:00etan **sokatira saioa**. Taldeen pisaketa 16.30etan izango da.

URRIAK 2 astelehena

● **Euskal prozesu demokratikoaren aldeko konzentrazioa**. Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan hasita.

● **Lehenengo Kultura Aholku batzarra**. Gaia: **Kultur Etxe berria**. Udaleko pleno aretoan.

URRIAK 3 asteartea

● San Praixku jaiak Aginagan

19.30etan **poteo** herrikoia.

23.00etan **Trakets taldea** eliza zaharrean.

URRIAK 4 asteazkena

● San Praixku jaiak Aginagan

11.00etan **meza nagusia.**

Ondoren **zaharren hamaiketakoa** Aginaga Sagardotegian bi bertsolariz alaituta.

17.00etan **herri kirolak**, herriko gazteak sasoi betean.

Ondoren **sardin eta sagardo dastaketa.**



Aterpe eskulangintza taldeak aurten ere urrian irekiko du bere tailerra Etxealdian. Bertan tailaketa, marrazkia eta pintura, zaharberritzeak eta eskulanak landu ahal izango dira. Izena eman nahi duenak 943-360744 telefonora deitu beharko du

URRIAK 6 ostirala

● San Praixku jaiak Aginagan

9.00etan **umeen jolasei hasiera** emango zaie.

14.00etan **umeentzat bazkaria**.

17.00etan **Sebastopoleko titiriteroak**.

Ondoren **txokolate banaketa**.

24.00etan **Akelarre** taldearekin dantzaldia.

URRIAK 7 larunbata

● San Praixku jaiak Aginagan

16.00etan **XX. mus txapelketa**.

20.30etan **bertso afari herrikoia** Mañukorta, Jon Maia eta Sebastian Lizaso bertsolariekin.

24.00etan **Morau** bakarlaria.

1.00etan **herriko presoei omenaldia**.

Ondoren **Izotz** taldearekin dantzaldia goiz alderarte. Gaupasa egin ondoren **xexenak**.

URRIAK 8 igandea

● San Praixku jaiak Aginagan

7.00etan **gosaria** txokolate beroaz.

Ondoren **xexenak**, herriko balienteak ezagutzeko aukera.

9.00etan probintzia mailako **plater tiraketa**.

17.00etan **sagardo dastaketa**.

OHARRAK

✎ **Galtzaragainan dagoen taberna saldu nahi nuke**. Interesatuok deitu 943 36 45 98 telefonora (gauean deitu mesedez).

✎ **Bigarren eskuko irratikasetak, telebistak...behar dira**, ahal izanez gero modu onean. Telf. 943 37 18 80 (Ander)

✎ Udarregi ikastolan **eskola kiroleko monitoreak behar dira**. Deitu 943 26 12 16 edo 943 37 06 45 telefonoetara.

✎ **Frantsaseko klaseak hartuko nituzke.** Deitu 629482474 telefonora.

✎ **Mutil bat behar da igeltseritzako peoi lanetarako**. Baldintzak: Gidatzeko baimena eta autoa izatea./ 18 urtetik 25 urte bitartekoa izatea. Telefono honetara dei dezakezue:

943 36 37 67 (Josetxo)

urriaren 1ean

kilometroak 2000 Azpeitian

hau da!

Zatoz gurekin ibilbidea egitera

IKASBERRI

AZPEITIKO IKASTOLA

USURBILGO OFIZIOAK ZURE ESKURA DITUZU

Igeltseritza

URDANTZI

Mugikorrak: 649 43 54 75
649 43 54 76
☎ 943 363370- 361439

ERRAZKIN
IGELTSERITZA OROKORRA
Kale Nagusia, 1
☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25
Santuenea ☎ 629 42 05 65

JOSE AIZPURUA UNANUE
Igeltseritza eta pintura
Teilatuen berritzea
Fatxaden konponketa
Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83
Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

JOSUE ARANTZISTROKI
Igeltseritza eta pintura
Juan Jose enea, 6
Kalezar
☎ 943 36 05 50- 606 37 21 05

Aroztegiak

BEREZIARTUA
Egurrezko eta aluminioegurrezko leihoak
Aginaga Telf: 943 37 15 71

JOSE RAMON IBARGOIEN
Neurriko altzariak
Errotaberri kalea, 3 Osinalde
☎ 943 36 14 48 - 36 31 24

JOSE MARI IKUTZA
Ugarte, 4 Kalezar
Telf eta faxa: 943 37 12 21

Iturgintza

IÑAKI LATAILLADE
Iturgintza gas eta berogintza
INSTALAKUNTZAK
Mobila: 609 888021

Iturgintza - Gasa Berokuntza
J. Orbegozo
Bizkarra 1, 1.esk. ☎ 37 29 37 - 36 59 26

JOSEBA ARANGUREN
☎ 943 36 43 64

Iñaki Iturgintza
- Iturgintza orokorrean
- Berokuntzak
- Gasa

Mobila: 600 024 825

Eskaiola

JOSE ANTONIO ELORZA
Galtzaraborna 2-2B
943 37 34 70

Pinturak

FERNANDO PINTURAK
Enpapelaketak eta pinturak orokorrean
Telf: 943 36 60 19- 36 34 60

RAMON BARCENILLA
. Pikor pintura eta gotele lanak
. Papereztatze-lanak
. Pintura-lanak orohar
Mobila: 629 46 09 66

Pinturas Ion
943 83 09 37 ☎ 670 397504

Elektrizitatea

MIKEL IZAGIRRE
Goiz-Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95

Gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu! 943 36 03 21 telefonora